

A1 MAILA



BAT ZUK

æk
20.korrika

2017ko martxoaren 30etik apirilaren 9ra
OTXANDIOTIK IRUÑERA

Korrika badator!

(AUTOIKASKUNTZA)

KORRIKA 20. *Korrika badator!*

Ataza honen helburu nagusiak dira, batetik, Korrika zer den gogoratzea edo ezagutzea, eta bestetik, 20. Korrikaren berri izatea. Aurrekoaz gain, mailari dagozkion hainbat edukiri erreparatzea ere izango dugu helburu, jakina.

Helburuoi heltzeko, ondoko ataza proposatzen dizugu.



Ataza: *Korrika badator!*



Ataza honen helburua Korrika gogora ekartzea da. Hasteko, gaia modu atseginean aurkezteko, Euskal Herriari, euskarari eta Korrikari buruzko datu bitxiak ikasten laguntzeko jokia egingo dugu. Ondoren, "*Korrika arduradunei elkarrizketa*" izeneko testua irakurriko dugu, eta, jasotako informazioa oinarri, lagun batek *whatsapp* bitartez egindako galderei erantzungo diegu.

HELBURUAK

- ▶ Korrika gaia eskolara ekartzea.
- ▶ 20. Korrikari buruzko informazio esanguratsuena eskolaratzea.
- ▶ Euskal Herriari, euskarari eta Korrikari buruzko datu bitxiak ikastea.

OHAR GARRANTZITSUA:

Ataza honen atal batzuk (jolaserako ikus-entzunezkoa, elkarrizketa...) zailak izan daitezke A1 mailan hasi berriak diren ikasleentzat. Horrelako kasuetan ataza aurrerago, urtarrialean edo otsailean egiteko uztea gomendatzen dizuegu.



Mintzatu



Bideoa ikusi



Kanta



Idatzi



Entzun



Irakurri



Jolasa



Ariketa



Korrika badator! (A1)

A. "Euskal Herria, euskara eta Korrika" jokoak.

Jokoan agertuko den lexikoa aurreikusi ondoren, ikasleek jokoaren arauak irakurriko dituzte eta jokoan egingo dute.

TUTORETZA

- Komentatu ikasleekin jokoan jaso dituzten datu bitxiak, eta lagundu ariketetan sortutako zalantzak argitzen.

B. 20. Korrikari buruzko elkarrizketa.

Ikasleek Korrikari buruzko elkarrizketa irakurriko dute eta informazioa whatsapp bitartez zabalduko dute.

TUTORETZA

- Komentatu ikasleekin elkarrizketan jasotako informazioa, eta lagundu ariketetan sortutako zalantzak argitzen.

MINTZASAIOAN GAI AZ ARITZEKO PROPOSAMENAK

- Ikusi "Euskal Herria, euskara eta Korrika 1" ikus-entzunezkoa.
- Ikus-entzunezkoa ikusi ondoren, mintzatu ikasleekin bideoan ikusitakoaz (zer ezagutzen zuten, zer iruditu zaien bitxien...).



Korrika badator! (A1)

A. "Euskal Herria, euskara eta Korrika" jokoa.

Jokoan agertuko den lexikoa ikasi ondoren, irakurri arauak eta jokoan egin (*Después de aprender el léxico que apareciera en el juego, lee las instrucciones del mismo y juega*).

EGINKIZUNAK

- Irakurri ariketan eskaintzen zaizkizun hitzak eta azpimarratu itzulpen egokiak (5. or.).
Lee las palabras que se proponen en el ejercicio y subraya las traducciones correctas (Pág. 5)
- Irakurri arretaz jokoaren arauak (6. or.).
Lee atentamente las instrucciones del juego (Pág. 6).
- Jarri "Euskal Herria, euskara eta Korrika 1" ikus-entzunezkoa eta jokatu (7.-8. or.).
Pon en marcha el audio-visual "Euskal Herria, euskara eta Korrika 1" y juega (Págs. 7-8).

ZUZENKETAK

- Erantzunak, 14. orrialdean (*respuestas, en la página 14*).
- Erantzun zuzenak jokoan bertan ematen dira (*las respuestas correctas se dan en el mismo juego*).

B. 20. Korrikari buruzko elkarrizketa.

Irakurri Korrikari buruzko elkarrizketa eta zabaldu informazioa whatsapp bitartez (*Lee la entrevista sobre la Korrika y comparte la información por whatsapp*).

EGINKIZUNAK

- Irakurri "Korrika arduradunei elkarrizketa" testua ariketan roposatzen diren instrukzioei jarraiki (9.-10. or.).
Lee el texto "Korrika arduradunei elkarrizketa" siguiendo las instrucciones que se te proponen (Págs. 9-10).
- Jaso testuan agertutako hitz berri batzuk 10. orriko taulan, eta idatzi adibide bat hitz horietako bakoitzarekin.
Recoge en la tabla de la página 10 algunas de las palabras nuevas aparecidas en el texto, y escribe un ejemplo con cada una de ellas.
- Irakurri whatsapp haria eta idatzi falta diren erantzunak (11. or.).
Lee la conversación de este grupo de whatsapp y escribe las respuestas que faltan (Pág. 11).

ZUZENKETAK

- Idatzitako esaldiak tutoreari erakutsi zuzentzeko (*muestra las frases que escribas a tu tutor o tutora para su corrección*).
- Erantzunak, 14. orrialdean (*respuestas, en la página 14*).

**ZER DAKIZU?**

Laster, joko dibertigarria egingo dugu. Baina jokoan entzun eta irakurriko duguna errazago ulertzeko, ariketa hau egingo dugu eta hitz berriak ikasiko ditugu.

A continuación, jugaremos a un divertido juego. Pero para entender más fácilmente lo que oiremos y leeremos en dicho juego, haremos este ejercicio y aprenderemos nuevas palabras en euskara.

- ➔ Irakurri ondoko hitzak eta azpimarratu itzulpen egokiak (*Lee las siguientes palabras y subraya las traducciones correctas*).

Korrikari buruz: pensar rápido / aprender de memoria / sobre la Korrika.
Lasterketa erraldoia: carrera de relevos / carrera gigante / carrera rápida
Egurrezko lekuko: suelo de madera / testigo de madera / mueble de madera.
Korrika bakoitza: cada Korrika / una sola Korrika / la primera Korrika
Lelo: lento,-a / lema / tonto,-a
Zeharkatu: envejecer / atravesar / recordar
Lurralde: territorio / suelo / camino
Herrialde: pueblo / provincia / ciudad
Hiztun: idioma / palabra / hablante
Euskalki: hablante de euskara / dialecto del euskara / idioma
Mendebalde: oeste / este / norte
Zalantza: duda / pregunta / respuesta
Asmatu: tener asma / inventar / organizar
Mende: mes / semana / siglo

- ➔ Orain, irakurri beheko esaldiak, erreparatu letra lodiz idatzitako hitzei eta egiaztatu aurreko ariketako hitzen itzulpenak (*A continuación, lee las siguientes frases, fíjate en las palabras en negrilla, y comprueba las traducciones del ejercicio anterior*).

Zer dakizu **Korrikari buruz**? Eta Euskal Herriari buruz? Eta euskarari buruz?


Korrika **lasterketa erraldoia** da. Korrikan, **egurrezko lekuko** bat eramaten da. Korrika **bakoitzak** bere **leloa**, bere kanta eta bere omendua ditu. Euskal Herri osoa **zeharkatzen** du.

Euskal Herria euskararen **lurraldea** da. Zazpi **herrialde** ditu: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Nafarroa Garaia eta Zuberoa. Handiena Nafarroa da.

Euskarak 700.000 **hiztun** ditu. Bost **euskalki** ditu: **mendebaldeko** euskalkia edo bizkaiera, erdialdeko euskalkia edo gipuzkera, nafar-lapurtar euskalkia, nafar euskalkia era zuberotar euskalkia.

Informazio apur bat irakurri dugu, baina oraindik **zalantza** asko ditugu: nork **asmatu** zuen Korrika? Noiz? Zein **mendetakoa** da euskara?

Hori guztia eta gauza gehiago ondoko jokoan ikasiko dugu.





"EUSKAL HERRIA, EUSKARA ETA KORRIKA" JOKOA

Jokoaren helburua.

- ▶ Euskal Herriari, euskarari eta Korrikari buruzko adierazpen bitxi batzuk egia ala gezurra diren asmatzea.

Jokoaren prestaketa.

- ▶ Jokoan hasi aurretik, irakurri arretaz 7. orrialdeko instrukzioak.

Jokoaren arauak.

- ▶ Jarri "Euskal Herria, euskara eta Korrika" ikus-entzunezkoa.
- ▶ Pantailan "Egia ala gezurra?" agertzen den bakoitzean, eten ikus-entzunezkoa.
- ▶ Une horretan pantailan agertzen den adierazpena egia ala gezurra den asmatu beharko duzu. Horretarako, 7. orrialdeko aukera bat aukeratuko duzu eta erantzunen zutabea jasoko duzu (bigarren zutabea).
- ▶ Erantzuna aukeratu ondoren, jarri martxan ikus-entzunezkoa berriro benetako erantzuna ezagutzeko.
- ▶ Erantzuna entzun ondoren, eten berriro ikus-entzunezkoa puntuazioak jasotzeko. Honela egingo duzu: erantzuna asmatu baduzu, jokaturako puntuak irabaziko dituzu, eta puntu horiek hirugarren zutabea jasoko dituzu (+3, +2 edo +1); erantzuna asmatu ez baduzu, aldiz, jokaturako puntuak galduko dituzu eta puntuazioak jasotzean, -3, -2 edo -1 idatziko duzu.
- ▶ Puntuazioa jasota, ikus-entzunezkoa martxan jarriko duzu berriro hurrengo adierazpena agertu arte.
- ▶ Jokoaren amaieran batu lortu dituzun puntuak.

Objetivo del juego.

- ▶ Adivinar si unas afirmaciones curiosas sobre Euskal Herria, el euskara y la Korrika son ciertas o no.

Preparación del juego.

- ▶ Antes de empezar a jugar, lee atentamente las instrucciones de la página 7.

Jokoaren arauak.

- ▶ Pon en marcha el audiovisual "Euskal Herria, euskara eta Korrika".
- ▶ Cada vez que aparezca en la pantalla "Egia ala gezurra?", detén el audiovisual.
- ▶ En ese momento podrás leer en la pantalla una afirmación y tendrás que adivinar si es cierta o falsa. A tal fin, deberás escoger una de las opciones que se ofrecen en la página 7 y escribirla en la columna de las respuestas (segunda columna).
- ▶ Una vez escogida la respuesta, pon de nuevo en marcha el audiovisual para conocer la respuesta correcta.
- ▶ Después de escuchar la respuesta correcta, detén de nuevo el audiovisual para anotar la puntuación que has conseguido. Lo harás de la siguiente manera: si has acertado la respuesta, ganarás los puntos que te hayas jugado y los anotarás en la tercera columna (+3, +2 o +1); si has fallado la respuesta, perderás los puntos que te has jugado y escribirás -3, -2 o -1 en el lugar correspondiente.
- ▶ Una vez anotada la puntuación, pon de nuevo en marcha el audiovisual hasta que aparezca en pantalla la siguiente afirmación.
- ▶ Al terminar el juego suma los puntos conseguidos.



Jokoaren puntuazioa.

- ▶ Idatzi lehenengo zutabean ikus-entzunezkoan agertzen diren adierazpenak.
- ▶ Idatzi bigarren zutabean zure apustua adierazpen horiei buruz. Horretarako, ondoko ereduak erabil ditzakezu:

- ▶ Escribe en la primera columna las afirmaciones que aparecen en el audiovisual.
- ▶ Escribe en la segunda columna tu apuesta sobre si esas afirmaciones son ciertas o no. Para ello, puedes usar los modelos siguientes:

3 puntu jokoan (3 puntos en juego)

- Egia da, jakina! / - Gezur hutsa da

2 puntu jokoan (2 puntos en juego)

- Nire ustez, egia da / - Nire ustez, gezurra da

1 puntu jokoan (1 punto en juego)

- Agian, egia izango da / - Agian, gezurra izango da

- ▶ Jaso hirugarren zutabean lortutako puntuazioak.
- ▶ Batu puntu guztiak.

- ▶ Recoge en la tercera columna las puntuaciones obtenidas.
- ▶ Suma la puntuación total.

ADIERAZPENAK	APUSTUA	PUNTU.
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		



ADIERAZPENAK	APUSTUA	PUNTU.
7.		
8.		
9.		
10.		
11.		
12.		
13.		
14.		

**KORRIKA-ARDURADUNEI ELKARRIZKETA**

Ondoko aholkuak irakurri ondoren, irakurri artikulua eta jaso hitz berriak hurrengo orrialdeko zerrendan.

Una vez leídos los siguientes consejos, lee el artículo y escribe las palabras nuevas en la lista de la hoja siguiente.

IRAKURTZEKO AHOLKUAK (consejos para leer)

a. Saiatu testua **jarraian irakurtzen**.

b. Irakurtzean, baliteke ulertzen ez dituzun hitzak edo esaldiak aurkitzea.

b.1. Hitz edo esaldi horiek **testua ulertzeko oztupoak badira**, saiatu esanahia argitzen (bilatu hiztegian, galdetu...).

b.2. Hitz batzuk ulertu ez arren, **testuaren hariari jarraitzen badiuzu**, azpimarratu hitz horiek eta jarraitu irakurtzen.

c. Testua irakurri ondoren, **bilatu hitz berrien esanahia** eta apuntatu, ez ahazteko.

a. Intenta leer el texto de un tirón.

b. Al leer, puede que encuentres palabras o frases que no entiendes.

b.1. Si esas palabras te impiden comprender el texto, intenta aclarar su significado (busca en el diccionario, pregunta...).

b.2. Si puedes seguir el hilo del texto a pesar de no entender algunas palabras, subráyalas y continúa leyendo.

c. Después de leer el texto, busca el significado de las palabras nuevas y apúntalas, para recordarlas.

Korrika badator!

AEK-k Korrika aurkeztu¹ du San Telmo museoan, Donostian. Bertan, Asier Amondorekin hitz egin dugu, Korrikaren arduradunarekin².

Zer da Korrika?

Asier: Korrika euskararen aldeko **lasterketa³** da. AEK-k **antolatzen⁴** du eta milaka lagunek hartzen dute parte.

Zergatik antolatzen da Korrika?

Asier: Bi **helburu⁵** ditugu: lehenengoa, jendea animatzea euskara ikasten eta erabiltzen; bigarren helburua ekonomikoa da, AEKren euskaltegiei laguntzeko dirua lortu nahi dugu.

Korrika San Telmo museoan aurkeztu duzue. Zergatik?

Asier: Korrika hau **berezia⁶** izango da: 20. Korrika da. Horregatik, leku berezia **aukeratu⁷** dugu aurkezpena egiteko. Korrikan **lekuko⁸** bat eramaten dugu beti. Lekukoa **eskuz esku⁹** pasatzen da, eta barruan mezu sekretua dauka. **Mezua¹⁰** azken egunean irakurtzen da. Bada, Korrikaren lehenengo lekukoa hemen dago, San Telmo museoan.



1. Aurkeztu: *presentar*
2. Arduradun: *responsable*
3. Lasterketa: *carrera*
4. Antolatu: *organizar*

5. Helburu: *objetivo*
6. Berezia: *especial*
7. Aukeratu: *escoger*
8. Lekuko: *testigo*

9. Eskuz esku: *de mano en mano*
10. Mezu: *mensaje*

Nondik nora ibiliko da 20. Korrika?

Asierrek: 20. Korrika Otxandion hasiko da martxoaren 30ean eta Iruñean amaituko da apirilaren 9an. Bidean, 2.300 kilometro egingo ditu eta Euskal Herriko herri askotatik pasatuko da.

Zein izango da Korrikaren leloa¹¹?

Asier: Leloa BATZUK izango da. Hitz-jokoa da BAT eta ZUK hitzekin. Hizkuntzak eta kulturak mundu BAT **osatzen**¹² dute. Mundu horretan ZUK ere parte hartu ahal duzu.

Eta zein izango da aurtengo kanta?

Asier: Kanta oraindik sekretua da. Laster aurkeztuko dugu eta orduan entzungo duzue. Baina oraindik ez. Hori bai, beti bezala, kanta ederra izango da, seguru.

Nor omenduko¹³ du 20. Korrikak?

Asier: Korrika, 1980an sortu eta gero, euskararen aldeko **ekimenik**¹⁴ handiena **bilakatu**¹⁵ da. Horregatik, edizio honetan Korrikaren **sortzaileak**¹⁶ omenduko ditugu.



- 11. Leloa: lema
- 12. Osatu: completar
- 13. Omenu: homenajear
- 14. Ekimen: iniciativa
- 15. Bilakatu: convertir(se)
- 16. Sortzaile: creador,-a

Bilatu hitz berrien esanahia eta idatzi hemen: galdetu ikaskideei, bilatu hiztegia...

Busca el significado de las palabras nuevas y anótalo aquí: pregunta a tus compañeros/as, busca en el diccionario...).

ULERTU EZ DITUDAN HITZAK	ESANAHIA
1.
2.
3.
4.
5.
6.
7.
8.
8.
10.



KORRIKARI BURUZ WHATSAPP TALDEAN



Irakurri *whatsapp* haria eta idatzi falta diren erantzunak.

Lee la conversación de este grupo de *whatsapp* y escribe las respuestas que faltan.

80ko gazteak 12:46

Amaia
Gaur, Korrikaren aurkezpena egon da.

Unai
Bai, ikusi dut telebistan.

Amaia
Noiz hasiko da?

Mikel
Nik ez dakit, ez dut ikusi.

Ni neu (1)
.....
.....
.....

Amaia
Eta nondik aterako da?

Unai
Bilbotik, uste dut.

Ni neu (2)
Ez,
.....
.....

Amaia
Eta non amaituko da?

Ni neu (3)
.....
.....
.....

Amaia
Noiz?

Ni neu (4)
.....
.....
.....

Mikel
Kantak oso onak izaten dira. Zein da aurtengoa?

Ni neu (5)
.....
.....
.....

Unai
Ez dute aurkeztu, baina laster egingo dute. Eta leloa zein da?

Amaia
Ideiarik ez. Zuek badakizue?

Ni neu (6)
.....
.....
.....

Amaia
Eta nor da omendua?

Ni neu (7)
.....
.....
.....

Unai
Joango gara Otxandiora lehenengo egunean?

Mikel
Nik ezin dut.

Amaia
Ni bai, joango naiz.

Ni neu (8)
..... ere
.....
.....

bidali

ERANTZUTEKO MODUAK

- a. Bilbon amaituko da.
- b. Ez da Bilbon amaituko.
- c. **Nire ustez**, Bilbon amaituko da.
- c. **Ez dakit / Ideiarik ez.**





Euskal Herria, euskara eta Korrika. Transkripzioa.

Korrika euskararen aldeko jai handia da. Lasterketa erraldoia da eta Euskal Herri osoa zeharkatzen du euskararen alde.

Euskal Herria. Euskara. Korrika. Hitz ezagunak. Baina zer dakigu haiei buruz? Zer dakigu Euskal Herriari buruz? Eta euskarari buruz? Eta Korrikari buruz?

EUSKAL HERRIA

Euskal Herria terminoak euskararen lurraldea esan nahi du. Noizkoa da termino hori?

1. Euskal Herria terminoa Sabino Aranak asmatu du.

Gezurra da. Sabino Aranak Euzkadi terminoa asmatu zuen, 1896. urtean. Euskal Herria terminoa zaharragoa da.

Euskal Herria Europako herrialdea da. Ez da handiena, baina txikiena ere ez.

2. Euskal Herria Suitza bezalakoa da.

Ez da egia. Euskal Herriak 21.000 km² dauzka; Suitzak, berriz, 41.000 km².

Euskal Herrian, zazpi herrialde daude: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Nafarroa Garaia eta Zuberoa. Handiena Nafarroa Garaia da.

3. Herrialde txikiena Zuberoa da.

Egia da. Nafarroa Garaiak 10.421 km² dauzka; Arabak 3.316 km²; Bizkaiak 2.236 km²; Gipuzkoak 1.980 km²; Nafarroa Behereak, 1325 km²; Lapurdik 855 km²; eta Zuberoak 814 km².

EUSKARA

Munduan, hizkuntza asko hitz egiten dira.

4. Munduan, 1.000 hizkuntza hitz egiten dira.

Gezurra da. Kalkulatzen da, gaur egun, 7000 hizkuntza inguru daudela munduan.

5. Ingelesa da pertsona gehienek hitz egiten duten hizkuntza.

Gezurra da. Txinera 900 milioi pertsonak hitz egiten dute; ingelesa 470 milioi; india 420 milioi; gaztelania 360 milioi... Euskarak, berriz, 700.000 hiztun inguru ditu.

6. Euskal Herrian, 100 hizkuntza baino gehiago daude.

Egia da. Euskal Herrian, 100 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira. Garrantzitsuenak euskara, gaztelania eta frantsesa dira, alegia, Euskal Herriko hiru hizkuntza ofizialak.

7. Euskal Herriko 4. hizkuntza txinera da .

Gezurra da: arabiera da.

Euskarak bost euskalki ditu: mendebaldeko euskalkia edo bizkaiera, erdialdeko euskalkia edo gipuzkera, nafar-lapurtar euskalkia, nafar euskalkia eta zuberotar euskalkia.

8. Euskalkien lehenengo mapa Napoleon Bonaparteren ilobak egin du.

Egia da. Euskalkien lehenengo mapa Luis Luziano Bonaparterek egin zuen, Napoleonek ilobak.

9. Lehenengo esaldi idatziak Burgosen aurkitu dira.

Gezurra da. Lehenengo esaldi idatziak Errioxan aurkitu ziren, Susoko monasterioan. X. mendekoak dira.

KORRIKA

20. Korrika 2017an egingo da; 19. Korrika 2015ean egin zen; 18. Korrika 18 2013an...

10. Lehenengo Korrika 1980an egin da.

Egia da. Lehenengo Korrika 1980an egin zen, Oñatitik Bilbora.

11. Korrikan, 1.000 bat kilometro egiten dira gelditu gabe.

Gezurra da. Korrikan, gau eta egun, gelditu gabe, 2.300 bat kilometro egiten dira.

Korrikalariak egurrezko lekuko bat eramaten dute eskuetan. Lekukoaren barruan, mezu bat dago. Mezua Korrikaren azken egunean irakurtzen da.



12. Korrikaren lehenengo lekukoa San Telmo museoan dago.

Egia da. Lehenengo lekukoa Remigio Mendiburuk egin zuen, eta gaur egun San Telmo museoan dago.

Korrika bakoitzak bere leloa du. Bere kanta.

13. Lehenengo Korrikaren kanta Benito Lertxundik egin du.

Gezurra da. Lehenengo Korrikaren kanta Amuriza bertsolariak egin zuen.

Geroztik, euskal kantari askok egin izan dituzte Korrika-kantak. Korrika bakoitzak pertsonaia edo erakunde bat omentzen du.

14. Azken Korrikak Durangoko Azoka omendu du.

Egia da. 19. Korrikak Durangoko Azoka omendu zuen.

Laster hasiko da 20. Korrika, bere omendurekin, kantarekin eta leloarekin. Berriro ere, euskararen lekukoa Euskal Herriko bazter guztietara eramango du.



ZUZENKETAK

A. "Euskal Herria, euskara eta Korrika" jokoia.

ZER DAKIZU?

Korrikari buruz: sobre la Korrika; **lasterketa erraldoia:** carrera gigante; **egurrezko lekuko:** testigo de madera; **Korrika bakoitza:** cada Korrika; **lelo:** lema; **zeharkatu:** atravesar; **lurralde:** territorio; **herrialde:** provincia; **hiztun:** hablante; **euskalki:** dialecto; **mendebalde:** oeste; **zalantza:** duda; **asmatu:** inventar; **mende:** siglo.

B. 20. Korrikari buruzko elkarrizketa.

KORRIKARI BURUZKO WHATSAPP TALDEAN.

- (1) Martxoaren 30ean hasiko da.
- (2) Ez, ez da Bilbotik aterako, Otxandiotik aterako da.
- (3) Iruñean amaituko da.
- (4) Apirilaren 9an amaituko da
- (5) Oraindik ez dute aurkeztu.
- (6) Leloa BATZUK da.
- (7) Omendua Korrikaren sortzaileak izango dira.
- (8) Ni ere joango naiz